Amaia UNANUA OLLO

PSICOLOGIA Y PEDAGOGÍA /
PSIKOLOGIA ETA PEDAGOGIA

# HEZKUNTZA HOLISTIKOA: XXI. MENDERAKO HEZKUNTZA ERRONKA/
# *LA EDUCACIÓN HOLÍSTICA: UN RETO EDUCATIVO PARA EL SIGLO XXI*

TFG/*GBL* 2013

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
*Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea*

Grado en Maestro de Educación Primaria /
*Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua*

**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**
**Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**HEZKUNTZA HOLISTIKOA: XXI. MENDERAKO HEZKUNTZA ERRONKA/**
***LA EDUCACIÓN HOLÍSTICA: UN RETO EDUCATIVO PARA EL SIGLO XXI***

Amaia UNANUA OLLO

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**
Amaia UNANUA OLLO

**Izenburua / Título**
Hezkuntza Holistikoa: XXI. menderako hezkuntza erronka / La Educación Holística: un reto educativo para el siglo XXI

**Gradu / Grado**
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**
Lucia PELLEJERO GOÑI

**Saila / Departamento**
Psikologia eta pedagogía / Psicología y pedagogía

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**
2012/2013

**Seihilekoa / Semestre**
Udaberria / Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak Espainia mailan dagoen hezkuntza sistema eta honen oinarri psikopedagogikoak ulertzeko aukera eman digu modu honetan, LOE-ren (2006) ikuspegi konstruktibista ezagutu eta aztertu ondoren, hezkuntza holistikoak aldarrikatzen duen pertsonan zentratutako ikuspegiarekin konparatzeko aukera ahalbidetuz. Honekin batera, behin hezkuntzaren aurrekariak izan diren pedagogo edo psikologoak egindako ekarpenak ezagututa, hezkuntzaren ikuspegi holistikora egin dituzten ekarpenak aztertzeko aukera izan dugu.

Didaktika eta diziplinako moduluak gaur egun eskoletan erabiltzen ari den material didaktiko batean oinarrituz (Txanela), hezkuntzaren ikuspegi holistiko edo integraletik aztertzeko bidea eman digu. Modu honetan, ikuspegi honetan oinarrituz, proiektu honek dituen indar-guneak eta hezkuntzaren ikuspegi holistiko batetik falta zaizkion alderdiak garatuz.

Halaber, Practicum moduluak gaur egungo hezkuntza sistemaren barne dauden zentro ezberdinetako egoera ikusi eta hauek dituzten hutsuneak zehazteko aukera eman digu. Beraz, behin gustatzen ez zaizkigun elementuak zehaztuta horri aurre egiteko baliabide ezberdinak ikasteko aukera digu.

## Laburpena

Aldioro aldaketan dagoen gizarte batean murgildurik bizi gara, eta hezkuntza ere, honen isla da. XXI. mendeko gizarte egoerari modu esanguratsu eta eraginkorrean erantzuteko, jarraian proposatzen dugun hezkuntza paradigma hezkuntza holistikoa da, hau da, osotasunean zentratutako ikuspegia.

Hezkuntza holisitkoa ez da bat-batean sortutako paradigma bat, baizik eta historian zehar aurrera eramandako hainbat ikerketa epistemologiko eta psikopedagogikoek egindako ekarpenak oinarritzat hartuta sortutako ikuspegi berritzaile eta integratzailea.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu integral hau bermatzeko, hezkuntza holistikoak gizabanako guztiek lantzea beharrezkoa duten bost dimentsio proposatzen ditu: fisikoa, soziala, emozionala, adimenekoa eta espirituala. Modu honetan, gizabanakoaren auto-ezagutza eta auto-eratzea oinarritzat hartuta bere inguruaren gainean modu aske eta kontziente batean elkarreragiteko helburuarekin.

*Hitz gakoak*: Hezkuntza holistikoa; hezkuntza integrala; holismoa; hezkuntza transpertsonala; hezkuntza emozionala.

## Resumen

Vivimos inmersos en una sociedad en constante cambio, y la educación es el reflejo de ello. Para responder de forma significativa y eficaz a la situación social del siglo XXI, el paradigma educativo que proponemos a continuación es la educación holística, es decir, el enfoque centrado en la totalidad.

La educación holística no es un paradigma surgido de un momento para otro, sino que es un enfoque renovador e integrador que surge de la contribución hecha por diversas investigaciones epistemológicas y psicopedagógicas a lo largo de la historia.

Para asegurar este proceso integral de enseñanza-aprendizaje, la educación holística propone cuatro dimensiones que todos los sujetos deben trabajar: La física, la emocional, la social, la intelectual y la espiritual. De esta manera, se cimenta en el

auto-conocimiento y la auto-creación del individuo, teniendo como fin que se relacione de una forma libre y consciente con su entorno.

*Palabras clave*: Educación holística; educación integral; holismo; educación transpersonal; educación emocional.

## Abstract

We live immersed in a constantly changing society and education is a reflection of that. To respond meaningfully and effectively to the social situation of the twenty-first century, the educational paradigm proposed here is holistic education, which puts the focus on the whole.

Holistic education is not a paradigm emerged in the blink of an eye, but a renovator and inclusive approach arises from the contribution made by various epistemological and educational psychology researches throughout history.

To ensure this comprehensive process of teaching and learning, holistic education proposes four dimensions which all subjects should work: The physical, emotional, social, intellectual and spiritual. In this way, it is built on self-knowledge and self-development of the individual, with the purpose of being related freely and consciously with their environment.

*Keywords*: Holistic education; integral education; holism; transpersonal education; emotional education.

# AURKIBIDEA

**1. Aurrekariak, helburuak eta galderak** **1**
**2. Marko teorikoa** **2**
2.1. Sarrera 2
2.2. Hezkuntza holistikoaren garapen historikoa 3
2.3. Hezkuntza holistikoaren oinarri psikopedagogiko eta filosofikoak 8
**3. Hezkuntza holistikoa gaur egun** **10**
3.1. UNESCO-ren ekarpena 10
3.2. LOE-ren ikuspegi konstruktibistatik hezkuntza holistikoaren ikuspegi pertsonalistara 14
3.3. Hezkuntza holistikoaren printzipioak eta helburu orokorrak 16
3.4. Hezkuntza holistikoaren dimentsioak 20
3.4.1. Hezkuntza fisikoa 21
3.4.2. Hezkuntza afektibo eta soziala 21
3.4.3. Hezkuntza kognitiboa 23
3.4.4. Hezkuntza espirituala 23
**4. Hezkuntza holistikoa praktikara eramanez** **24**
4.1. Hezkuntza holistikoa ikuspuntu didaktiko batetik 24
4.4.1. Ikaskuntza dialogikoa 29
4.1.2. Ikaskuntza komunitateak 29
4.1.3. Inteligentzia anitzak 30
**5. Proposamen didaktiko bat hezkuntza holistikoaren ikuspuntutik** **34**
**Conclusiones / Ondorioak**
**Erreferentziak**
**Eranskinak**
**1.Eranskina**

# 1. AURREKARIAK, HELBURUAK ETA GALDERAK

Gradu bukaerako lanen zerrenda ikusterakoan eta behin guztiak aztertuta, arreta gehien deitu izan zidana hezkuntza holistikoaren paradigma izan zen. Egia esan, gaitegian ikusi aurretik ez nuen filosofia edo hezkuntza ulertzeko modu hau ezagutzen, baina behin informatua izugarrizko jakin-mina sentitu nuen. Hezkuntza holistikoari buruz gehiago jakiteko grina sentitu nuen oso aberasgarria iruditzen baitzitzaidan hezkuntzaren esparruan espiritualitatea eta emozioak lantzea.

Gainera, gai hau landu aurretik praktiketan ibilia nintzen eta asko ikasi banuen ere, hutsune bat sentitzen nuen. Nire ustez, emozio eta espiritualitatearen munduari ez zioten nik ematen diodan garrantzia berdina ematen. Beraz, aspektu hauek lantzeko aukera izan nuenean ez nuen birritan pentsatu.

Nire aburuz oso garrantzitsua da nork bere buruaz, sentimenduez, jarduteko moduaz… kontziente egitea, honek mundua ezagutu eta horretan parte hartzeko modua baldintzatzen baitu. Gainera, askotan iruditzen zait gaur egun aurrera eramaten ari den hezkuntza estiloaren bitartez, niretzat funtsezkoa den alderdi hau, bigarren maila batean geratzen ari dela, ikaslearen ikaskuntzarako jarreran ikaragarri eragiten badu ere.

Beraz, ikerketa honekin lortu nahi ditudan helburuak honakoak dira:

- Hezkuntza holistikoa ulertu eta ezagutu, eta bere helburu eta hezkuntza praxisa aztertu.
- Gaur egun artioko hezkuntzaren garapena aztertu eta ulertu.
- Hezkuntza alorreko gaur egungo egoera aztertzea bere indar-gune eta ahulguneak identifikatuz.
- Hezkuntza integrala ahalbidetzeko tresnak ezagutu.
- Hezkuntza emozionala eta espirituala lantzeko baliabideak aztertu.
- Nire hezkuntza praktikan baliagarriak suertatu ahal zaizkidan baliabideak ezagutu.

Behin ikerketa honekin lortu nahi ditudan helburuak azalduta, jarraian lanarekin hasi baino lehen azaldu zaizkidan dudak edo galderak aipatuko ditut:

- Hezkuntza holistikoaren ikuspegia gaur egungo hezkuntza sisteman barneratzea posiblea izango zen?
- Hezkuntzaren ikuspegi holistiko batetik zein gabezi ditu gaur egungo hezkuntza sistemak?
- Nola bermatu daiteke hezkuntzaren ikuspegi holistikoa?
- Hezkuntza esparruan emozioak lantzea etorkizunera begira zelako garrantzia dauka?
- Hezkuntza sisteman espiritualitatea lantzeak zelako ondorio positiboak ditu?

# 1. MARKO TEORIKOA

## 2.1. Sarrera

- *Zer da holismoa?*

Holismo hitza grekotik eratorria da eta *holo-* aurrizkiak osotasuna esan nahi du. Carlos Wernikerek (1994) holismoak gizakia garrantzi berdina duten lau plano edo dimentsioz osatuta dagoela aldarrikatzen du, hau da, adimena, emozioak, espiritualitatea eta alderdi fisikoa. Baina dimentsio hauen arteko elkarreragina aldi berean eta modu orekatuan ematen da, beraz ezin dira modu isolatuan lantzen diren esparruak bezala ulertu irudi bakar bat osatzen baitute.

- *Dimentsio fisiko edo biologikoa:* Materiaz osatutako izakiak gara, hau da, energia kontzentrazio hutsa. Baina izaki fisiko garen heinean, testuinguruarekin energia trukatzeko prozesuen bitartez osatuak izan gara, beraz, bizitzeko.

  Alderdi honek betiere bi ezaugarri aurkezten ditu: a) testuinguru baten parte bezala hezten da. b) garapenaren segida propioa bizitzen du.
- *Dimentsio emozionala:* Sentimenduak gizakia sabelaren barruan bertan dagoenean sortzen dira eta pertzepzio guztien ulermenean parte hartzen dute. Pertzepzioak, zentzumenen bitartez testuinguruko

estimuluaren bilaketa aktiboa eragiten du, geroago barneko emozioekin osatzeko.

- *Adimenezko dimentsioa:* Informazioaren barneraketa, lantzea, sailkapena eta erreprodukzioa, eta informazio horri bideratutako erantzuna barne eragiten ditu. Hau da, adimenak ezagutzaren bilaketa aktiboaren bitartez, errealitatearen inguruan dugun irudi propioa eratzea ahalbidetzen du.
- *Dimentsio espirituala:* filosofia, erlijiozkotasuna, unibertsoari bideratutako partaidetza eragiten du. Gizaki guztiak intuitiboki existitzen dena eta ez denarekin aldioro erlazionatzen da, eta bakoitzaren izatearen inguruko bilaketa ahalbidetzen du.

- *Zer da hezkuntza holistikoa?*

Hezkuntza holistikoa gizakia bere osotasunean aztertzen duen hezkuntza ereda da. Gainera, gizaki bakoitzak bere garapena aurrera eramateko helburuarekin, beharrezkoak dituen estimuluen bilaketa aktiboa bideratzeko ahalmena duela aldarrikatzen du.

Honenbestez, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, osotasunen arteko erlazioan oinarritutako hezkuntza paradigma batean gaudela esan nahi du, gizakiak bere garapenerako behar dituen estimuluak aktiboki bilatzeko ahalmena dutenaren premisa oinarritzat hartuz.

## 2.2. Hezkuntza holistikoaren garapen historikoa

Hezkuntza holistikoaren paradigma ulertzeko ezer baino lehen historian zehar hezkuntzak bizitako garapena ikertu behar da. Hezkuntzarekiko atsekabea ez da gaur egun sortutako kezka, historian zehar oso garrantzitsua izan den gaia baizik.

Garai historiko bakoitzean gizarte mailan bizitzen ari zen errealitatea zela medio, hezkuntza sentitzeko eta ulertzeko modu ezberdinak egon dira. Beraz, hezkuntza elementu bizia da, hau da, aldaketa iraunkorrean dagoen elementu bat bezala ulertzea guztiz beharrezkoa da.

Hezkuntza holistikoan eragina izan duten ekarpenak ulertzeko Gonzalezek (2009) egindako garapen historikoaren azterketa bereizten dituen une historiko ezberdinak azalduko ditugu. Lehenik *Grezia Klasikora* jo behar dugu, hau da, kristo aurreko V. eta VI. mendeetara. Garai honetako ordezkari nagusiak Sokrates, Protagoras, Platon eta Aristoteles ditugu. Jada orduan, goi mailako hezkuntzaren helburua gorputza, adimena eta arimaren arteko oreka bilatzea zen. Sokratesek, auto-ezagutza edo auto-aurkikuntzak bizitzari esanahia ematen ziola zioen, modu honetan gizabanakoak ondorioei erreparatuz jarduteko aukera ahalbidetuz.

Historiako etapa *Errenazentista*n XV-XVI. mendeetan aldiz, hezkuntzaren xedea besteen artean, balore espiritualen berpizkundea izan zen, Erdi Aroko dogma kristauaz askatuz. Garai honetan humanista terminoa erabili izan zen lehenengo aldia izan zen. Hau da, humanitateak gizakia eratu eta garatzen duten interesekin zuzenki erlazionatu eta gizabanakoaren izateko era errespetatzen zituzten jakintzak balioesten zituzten.

Etapa *Erromantizistan* XVIII. mendearen bukaeran, Arrazionalismo zaharkituari aurre egin nahian zenbiltzan. Eta berebiziko garrantzia dute berezko izateak, gizakiaren baloreetan jarritako konfidantza edo fedeak, bai eta gizakiaren garapen eta hezkuntzak ere. Rousseau dugu garai honetako oso ordezkari garrantzitsua. Bere aburuz, gizakia berez ona da eta honenbestez, hezkuntza berezko izatearekin bat etorriz gauzatu behar dela uste zuen. Honekin batera, autore hau sentimenduen garrantziari arreta eman zion lehenengoa izan zen.

*XIX eta XX. mendeetan* Montessori, Decroly, Freinet eta beste autore askoren eskutik *eskola aktiboaren* mugimendua sortu zen. Korronte pedagogiko honek, hezkuntza, haurrak modu naturalean testuinguruaren gainean izandako esperientzietan oinarritzen dela defendatzen du, errespetua, askatasuna eta auto-hezkuntza aldarrikatuz.

Montessorik hezkuntzaren benetako arazoa espirituari behar duen lekua ez ematea dela esaten zuen. Garai honetako kide dugun G. Wyneken-ek Montessoriren teoriatik harantz doa eta gizabanakoaren garapenean oinarritua gizartearen bizitza espirituala eskolak bermatu beharko lukeela zioen. Freinet-ek aldiz, eskolan bizitzan bezala ikastea ahalbidetzen duen metodo naturala defendatzen du, beraz, ikaskuntzen

interdiziplinitatea eta interakzioa aldarrikatuz. Bestea alde batetik, Steiner eta Waldorf eskolak intuizioaren garapena ahalbidetu behar duela aldarrikatzen du, hau da, egun hezkuntza transpertsonala deritzogunaren garrantzia azpimarratzen zuen.

Jarraian hezkuntza holistikoaren aurrekarien laburpen bat taula moduan sartzea komenigarria iruditu zaigu:

1. **Taula.** Hezkuntza ikuspegi holistikoko aurrekariak[1]

| *Etapak* | *Ordezkari nagusiak* | *Hezkuntza joeraren deskribapen laburra* |
|---|---|---|
| Klasikoa<br>(Grezia Klasikoa)<br><br>(k.a. V eta VI mendeak) | Sokrates<br>Protagoras<br>Platon<br>Aristoteles | Sokrates arrazoia eta jakintzaren inguruan lan egin zuen. Oso atsekabetua zegoen gizakien egozentrismoa zela eta, hau da, nork bere buruaren onerako bakarrik jardutearekin, eta beraz, hauen helburu bakarra jakintzan edo, gizabanako eta hiritar bezala garatu ordez, oinarrizko beharrak asetzea zela esaten zuen. *Polis-aren irakasle* bezala, hiritarraren hezkuntzaren arazo garrantzitsuena bertute edo arrazoian trebatzea zela esan zuen. Auto-ezagutza edo auto-aurkikuntza bizitzari esanahia ematen ziola esaten zuen, horrela, ondorioei erreparatuz jarduteko. Bere ustetan, gizabanako bakoitzak bokazio oso pertsonal bat dauka, eta hiritar guztiek bere kontzientziak esaten duena egin behar du, zeren kontzientziaren ahotsak egin beharko genuena markatzen du. Mayeutikaren bitartez, bere ikasleek nork bere buruarekin aurkitzeko modu ezberdinak sustatzen zituen. Bere ustez, bakoitzak bere egi propioa *erdituz,* bakoitzaren benetako eginkizuna aurkituko luke.<br>Filosofia grekoaren kultura orokorra, gizakiaren ikaskuntza eta ulermenari, eta bere prozesu ebolutiboari garrantzia berezia emateagatik |

[1] González, A. Mª. (2009): *Educación holística.* Barcelona: Editorial Kairos. 199-202.

| | | |
|---|---|---|
| | | bereizten da.<br>Garai honetatik aurrera hezkuntza esparruan aldaketak ematen joan dira, garai historiko bakoitzaren arazo, erronka eta orduko paradigmei erantzuteko helburuarekin. |
| Errenazentista (XV-XVI. mendeak) | Feltre-ko Vittorino (1978-1446)<br><br>Erasmo Desiderio (1467-1536)<br><br>Juan Luis Vives (1492-1540)<br><br>Montaigne-ko Michel (1553-1592) | Hezkuntza errenazentistaren xedea balore espiritualen *berpizkundearekin,* zein askatasun eta naturarekiko gizakiaren nagusitasunarekin erlazionatzen da.<br>Humanismo errenazentista, ikerketa grekolatinoetan inspiratzen da. Modan jarri eta honekin batera, talentu, bizitasuna eta kuriositateagatik (egitasun zientifikoa bilatu) ezberdintzen den gizaki unibertsal eta indibidualistaren kontzeptua sortzen da.<br>Hau izan zen *humanista* terminoa erabili zuten lehenengo aldia, ezjakintasuna eta aurreko garaiko dogmatismoaz askatu eta, edertasuna, askatasuna, egia eta gizakien dignitatea bilatuz.<br>Errenazimendua gaurko pentsamendu posmodernoaren jatorria moduan ulertzen da. |
| Erromantizismoa (XVIII. mendearen bukaera) | Rousseau (1712-1778)<br><br>Pestalozzi (1746-1827) | Erromantizismoa, garai horretan nagusitzen ziren sistema mekanizistei aurre egiteko sortua izan zen. Gizakiaren berezitasunean enfasia jartzen du, egian eta ontasunari daukan joera naturalean, subjektibotasunaren garrantziari eta auto-espresioari erreparatuz.<br>Garai historiko honek ikuspegi erromantiko moduan ezaguna izan den hezkuntza humanista propioa du. Ordezkari garrantzitsutzat Rousseau dugu, eta berak hezkuntza on batean sinesten du, hau da, interes pertsonala taldekoarekin eta sentimendua arrazonamenduarekin integratua egon beharko lukeela argudiatuz.<br>Garai honek ondorengo hezkuntza praktika eta |

| | | |
|---|---|---|
| | | teorietan eragin handia izan du. |
| Eskola aktiboa<br>(XIX eta XX. mendeak) | Maria Montessori<br>(187-1952)<br><br>Celestine Freinet<br>(1896-1966)<br><br>Ovidio Decrolhy<br>(1891-1932)<br><br>Eduardo Claparede<br>(1893-1940)<br><br>J. Piaget<br>(1896-1980) | Hezkuntza, haurrak bere kabuz egindako prozesu naturala bezala eta testuinguruaren gainean izandako esperientzien bitartekoa moduan ulertutako metodo bat garatzen dute. Errespetua, askatasuna eta auto-hezkuntzaren garrantzia azpimarratuz.<br>Montessoriren aburuz, hezkuntzaren benetako arazoa eta bakarra, espirituari beharrezkoa duen arreta ematea da. |
| (XIX eta XX. mendeak) | G. Wyneken<br>(1875-1964) | Eskola komunitate libreen sortzailea dugu. Montessoriren ikuspuntua osatzen du, eta bere ustez, gizartearen espiritua garatua dagoela ziurtatzeko lehenengo, momentuko garapenaren gradua ezagutu eta gero jada, datorren gizartea maila horretan jarri behar da.<br>Bere ustez, jarduera hau eta gizartearen bizitza espiritualaren garapena bermatu behar duen erakundea eskola da. |
| (XIX eta XX. mendeak) | C. Freinet<br>(1896-1966) | Haurraren aukera, behar eta nahietan oinarritutako pedagogia bat proposatzen du, eta eskolak, bizitzan bezala ikasten ahalbidetzen duen ikaskuntzaren metodo naturala barneratu behar da. |
| (XIX eta XX. mendeak) | J. Piaget<br>(1896-1980) | Epistemologia genetikoaren sortzailea da eta hezkuntza esparruan, pertsonaia garrantzitsua izan da garapenaren psikologiari egindako ekarpenengatik, haurtzaroarekiko egindako ikerketengatik eta garapen kognitiboan egindako proposamen teorikoarengatik. |
| (XX. mendea) | P. Freire<br>(1921-1997) | *Hezkuntza bankario* zapaltzailea gainditzen duen hezkuntza askatzaile baten defendatzailea da. Amodioa eta esperantzan oinarritutako mundu |

| | | |
|---|---|---|
| | | humanizatuago bat bilatzen duen metodoa garatzen du. |
| (XX. mendea) | R. Steiner (1861-1925) | Waldorf eskolaren sortzailea da eta honetan, mendebaldeko gizaki modernoari egokitutako bide espiritualaren garapena praktikan jartzen du. Non pentsamendua abiapuntutzat hartuta, zientzia naturalak osatzen duen zientzia espiritual baten garapena proposatzen du. |

### 2.3. Hezkuntza holistikoaren oinarri psikopedagogiko eta filosofikoak

Behin hezkuntza holistikoaren garapen historikoa aztertua, orain alor psikopedagogiakora joko dugu, Ana María Gonzálezek (2009) azaltzen duenez, gizakiaren garapen ebolutiboaren ikuspegi humanistan korronte psikopedagogiko ezberdinak ditugu, besteen artean, Piaget-en garapen kognitiboa, E.Erikson eta E.Fromm-en garapen psikosozialaren proposamenak …

Hauen artean dibergentziak egonda ere, gizakiaren garapenaren prozesuari dagokienez, hainbat kointzidentzia garrantzitsu daude. Konbergentzia puntu hauen artean aurki ditzakegu:

- Gizakiek garapenaren prozesuan erritmo ezberdinak erakusten dituzte.
- Garapenaren prozesua erlatiboki ordenatua dago, hau da, progresio logiko, iraunkorra, motela eta sortzailea du.
- Garapenaren prozesuan ematen den polaritateen disoluzioaren garrantzia.

Teoria guzti hauek pertsonaren izaerako dimentsio bat edo gehiagotan zentratzen direla oinarritzat hartuta, haien artean ezberdintasunak eta kontraesanak izanda ere, proposamen bateratu bat eratu dezaketela defendatzen du ikuspegi holistikoak.

Baina proposatzen duten doktrina edo korronte ezberdinen arteko sistema bateratu honek, osotasun organiko bat eratu gabe, hauek konbinatu, nahastu edo mekanikoki errepikatzea gainditzen du.

Ana Maria Gonzalezek (2009) hezkuntzaren ikuspegi holistikoaren *oinarri filosofikoei* dagokienez, influentzia iturri garrantzitsutzat honako hauek dituela azpimarratzen du:

- *Korronte fenomenologikoa.* Husserl-en pentsamenduarengatik ordezkatua. Fenomenoak ez du bakarrik intuizioa eta ulermenaren kategoriengatik baldintzatuta dagoena adierazten, baizik eta bere baitan adierazten edo agertzen da, bere esentzian nolakoa den.
- *Pentsamendu fenomenologikoa eta Chardin-go Teilhar-en kosmobisioa.* Biologian oinarritutako proposamen ebolutibo honek, unibertsoaren garapen dinamiko eta unitarioaren aspektu kreatiboak eskaintzen ditu. Teilhard-ek gizakiaren garapena, munduaren sorreratik kontzientzia kritiko, auto-erreflexibo eta modu kontsekuentean librearen jaiotzarekin guztiz lotua ikusten du.
- *Ohitura espiritualak.* Pertsona bere osotasunean eratzea bilatzen du, eta honetarako, maila transzendentalean ematen den kontzientzia pertsonalaren bilaketa proposatzen du.
- *Perenne filosofia.* Gizaki guztiak handitu eta garatu daitezke bizitza deitzen diogun prozesu luze baten ondoren, honen bitartez “identitate gorena” eraginez.
- *Psikologia transpertsonala.* Korronte psikologiko honek garrantzia berezia ematen dio osasuna eta ongizate psikologikoaren ikaskuntza eta ikerketaren (enpiriko zein zientifikoaren) esparruari. Honekin batera, inpultso transzendentalaren ulermen sakonago bati, eta kontzientziaren garapen integrala lortzera bideratutako bere alderdi bio-psiko-sozial-espiritualari.

Wilberrek (1994) esaten duen moduan, psikologia transpertsonalak, pertsona edo kasu bakoitzerako egokiagoa den ikuspegi bat zehazteko perspektiba global bat ahalbidetzen du.

# 3. HEZKUNTZA HOLISTIKOA GAUR EGUN

## 3.1. UNESCO-ren ekarpenak

Hezkuntza holistikoaren oinarrien artean, nork bere burua ezagutzea guztiz oinarrizko eta beharrezkoa dela esaten du gero besteekin modu egokian elkar bizitzeko. Mundu mailako hezkuntza adituek ere, alderdi hauen lanketaren beharra ikusi izan dute.

Hau aldarrikatzeko helburuarekin, Jacques Delors UNESCO-ren zuzendaria izanik, batzorde honen izenean "*La educación encierra un tesoro*"[2] deituriko informe batean XXI. mendeko hezkuntzaren inguruan hausnarketa egin eta *hezkuntzaren lau zutabeen* garrantzia azpimarratu zuen.

Delors-ek (1996) aurkezten dituen zutabeen artean, hezkuntza holistikoaren printzipioetara ekarpen handiena egiten duten zutabeak *elkarrekin bizitzen ikastea* eta *izaten ikastea* dira.

Informe honetan esaten duenez, XXI. mendean inoiz bezalako informazio zirkulazio eta biltegirako zein komunikatzeko baliabideak izanik, hezkuntzak mundu konplexu eta aldakor honetan bizitzeko karta nautikoa transmititu behar du, eta aldi berean, horretan nabigatzeko iparrorratza ere.

Honenbestez, jada bizitza osoan zehar gizabanakoak edukiak metatzearekin ez da nahikoa. Gizakia aldiz, jakintza hauek probestu eta erabiltzeko prest egon behar luke bizitzako edozein momentuan. Modu honetan, hasierako jakintza hauek berritu, sakondu eta aberasteko prest egon behar du momentu oro, eta aldaketa etengabean dagoen mundu honetara egokitu behar da.

Hezkuntzak bereak dituen helburu hauek lortzeko, bizitzan zehar gizabanako bakoitzarentzat oso garrantzitsuak izango diren oinarrizko lau zutabeetan egituratu ditu. Zutabe hauek hein batean ezagutzaren zutabeak dira:

[2] Delors, J. (1996): "Los cuatro pilares de la educación" *La educación encierra un tesoro.* XXI. mendeko hezkuntzari buruzko batzorde internazionalak UNESCO-ri bideratutako informea. Madrid, Espainia: Santillana/UNESCO. 91-103 orriak.

- *Ezagutzen ikasi,* hau da, ulermena ahalbidetzeko instrumentuak bereganatu.
- *Egiten ikasi,* ingurunean eragiteko aukera izateko.
- *Elkarrekin bizitzen ikasi,* giza jarduera guztietan besteekin parte-hartu eta elkarrekin lan egiteko.
- *Izaten ikasi,* aurreko elementuak biltzen dituen oso prozesu garrantzitsua.

Jakintzaren lau zutabe hauek, osotasun batean bateratu egiten dira, haien artean lotura, aldaketa eta kointzidentziako puntu asko baitituzte. Gaur egungo hezkuntza eskolarra aldiz, ezagutzen ikastera murrizten da gehienbat, gainontzeko zutabeak bigarren plano batean utziz.

Batzordeak aldiz, edozein hezkuntza sistema egituratuan, betiere bere helburua gizabanakoa pertsona moduan, gizartearen parte bezala, esperientzia oso bat izan dezan eta bizitza osoan zehar plano kognosizitibo eta praktikoan irauteko, “ezagutzaren lau zutabeek” arreta berdina jaso beharko luketela aldarrikatzen du.

Modu honetan, hezkuntzaren kontzepzio zabalago batek, hezkuntza holistiko edo integralak aldarrikatzen duen moduan, pertsona bakoitzaren sormenerako aukera aurkitu, esnatu edo zabaltzeko aukera emango luke, guztiok barruan dugun altxorra azaleratuz. Beraz, pertsona hezkuntzaren ikuspuntu instrumental baten bitartez soilik ikustea, horren potentziala alde batera uztea suposatzen du, bere funtzioa osotasunean kontsideratzeko, jakitera bideratu behar dugu, *izaten ikastera*.

Jarraian, Delorsek (1996) proposatutako lau zutabe hauek banan-banan azalduko ditut:

- *Ezagutzen ikasten*

Ikasketa mota honek, gehienbat ezagutza menperatzeko instrumentuak aintzat hartzen ditu, eta aldi berean giza bizitzaren *bitartekari eta helburu* moduan kontsidera daiteke.

*Bitartekaritzari* dagokionez, pertsona bakoitzak inguratzen duen mundua ulertzera bideratzen du, dignitatez bizitzeko, bere gaitasun profesionala garatu eta

besteekin komunikatzeko gutxienez. *Helburu*ari dagokionez, ulertzeko, ezagutzeko eta aurkitzeko plazerrari eragiten dio.

Ezagutzaren zabaltzea, ingurunearen alde ezberdinak hobeto ulertzeko aukera ematen du, jakin-mina intelektuala pizten du, alderdi kritikoa estimulatzen du eta errealitatea deszifratzea ahalbidetzen du, aldi berean epaitzeko autonomia eskuratuz.

Lehenengo momentuan, ezagutzen ikasteak, ikasten ikastea suposatzen du, hau da, haurtzarotik arreta, memoria eta pentsamendua trebatzea.

Beraz, esan daiteke oinarrizko ikaskuntza arrakastatsua dela, bizitza osoan ikasteko bultzada eta oinarriak ahalbidetzen dituenean, eta ez bakarrik lanbidean baizik eta bizitzaren gainontzeko alderdietan ere.

- *Egiten ikasten*

Ezagutzen ikasi eta egiten ikastea, hein handi batean banaezinak dira. Baina bigarrena, alderdi profesionalari estuago lotuta dago. Beraz, behin gaur egungo lan mundua aztertuta, ikusten dugu ikaskuntzak garatu behar direla, eta jada ezin dela kontsideratu gutxi gora behera errutinarioak diren kontzeptuen transmisioa bezala, nahiz eta hauek gutxietsi ezin daitezkeen balore formatiboak izan.

Gaur egun, lan munduan, pertsona bakoitzean gaitasun espezifikoen multzo bat bilatzen da. Hau da, ikaskuntza tekniko eta profesionalaren bitartez lortutako kalifikazioaz aparte, jarrera soziala, taldean lan egiteko trebezia, iniziatibarako eta arriskuak onartzeko gaitasuna.

- *Elkarrekin bizitzen ikasten*

Ikaskuntza honek gaur egungo hezkuntzaren oinarrizko erronka dugu. Biolentzia ezaren ideia eskolan irakastea oso laudagarria da, nahiz eta aurreiritziengatik ondoriozko liskarrei aurre egiteko instrumentu moduan izan.

Beraz, egokia izango litzateke hezkuntzari bi orientazio osagarriak ematea. Lehenengo maila batean, bestearen ezagutza graduala. Eta bigarrenean, bizitza osoan zehar, komuneko proiektuetan parte hartzea. Baina betiere gogoratuz, bestearen ezagutza emateko, lehenik eta behin bakoitzaren ezagutza eman behar dela.

Elkarrizketa eta argumentuen alderaketa XXI. mendeko hezkuntzaren funtsezko tresna izan behar du.

- *Izaten ikasten*

Batzordeak egin zuen lehenengo bileratik garrantzia handia eman dio oinarrizko printzipioa hezkuntzak pertsona bakoitzaren garapen globalean eragin behar duela da, hau da, bai gorputza eta adimena, inteligentzia, sentsibilitatea, zentzu estetikoa, ardura indibiduala eta espiritualitatea. Gizaki guztiak, gehienbat haurtzaroan jasotako hezkuntzari esker, pentsamendu autonomo eta kritikoa izan behar dute, bere epaiketa propioak egiteko, beraien kabuz bizitzaren egoera ezberdinetan egin behar dutena erabakitzeko.

Inoiz baino gehiago, gaur egungo hezkuntzaren oinarrizko funtzioa gizakiei bere talentuak osotasunez garatzeko eta ahal den heinean, bere patuaren egileak izateko, pentsamendurako, epaiketarako, sentimenduentzako eta irudimenerako askatasuna ematea da.

Izateko moduen aniztasuna, autonomia eta iniziatibako espiritua, sormena eta berrikuntzarako bide dira. Etengabeko aldaketan dagoen mundu honetan, berrikuntza sozial eta ekonomikoa aldaketaren eragile nagusiak dira. Beraz, leku berezi bat utzi behar diogu irudimena eta sormenari, hauek baitira gizakien askatasunaren adierazpenerako oinarri nagusiak. XXI. mendeak talentu eta izateko modu ezberdinak beharko ditu, gizabanako parte izateaz gain gizartean oinarrizkoak baitira.

Jaiotzatik bizitzaren bukaera arte doan gizakiaren garapen hau, bakoitzaren ezagutzan hasi eta besteekiko erlazioetara irekitzen den prozesu dialektikoa da.

Hezkuntza gizabanakoaren errealizazio hori lortzeko bidea dugu. Prozesu hau alde batetik, oso indibidualizatua izan behar du eta bestetik, egituraketa sozial elkarreragilea izan behar du.

Aurretik azaldutako lau zutabeak ezin dira etapa edo testuinguru batera mugatu, baizik eta, hezkuntzaren eremu eta denborak berriz ere planteatzearen beharra dago. Modu honetan ere, haien artean osagarriak izanik, bakoitza bere bizitza

osoan zehar, hezkuntza testuingurua ahalik eta gehien probestu eta konstanteki aberasteko.

### 3.2. LOE-ren ikuspegi konstruktibistatik Hezkuntza Holistikoaren ikuspegi pertsonalistara

Behin mundu mailako hezkuntza esparruan aldarrikatzen den aldaketa azalduta, orain Espainiako egoera aztertuko dugu. Orain arte Espainia mailan izan dugun hezkuntza esparruko lege organikoa, LOE (2006), hezkuntzaren ikuspegi konstruktibistan oinarritua izan da.

Konstruktibismoa, teknologiaren aurrerapenek erakarritako komunikabide masibo eta informazio mordoari erantzuna emateko eratua izan zen, errealitate honek datu pilaren sarbidea ahalbidetzen badu ere, bere erabilera kasu batzuetan indiskriminatu eta gainazalekoa bilakatzearen arriskua dauka.

Ikuspegi konstruktibista Lev S. Vigotsky (1978) eta Jean Piageten (1896-1980) lanetan oinarritzen da. Haien aburuz, ikaskuntza, gizakiak egunez egun kanpoko eta barneko munduen arteko interakzioaren bitartez eratzen joaten den prozesua da. Beraz jakintza, gizakiak berak osatzen du, eta honetarako bere pertzepzioan oinarritzen da, aurreko jakintzetan moldaketak egiten eta testuinguruarekin elkarrekintzan.

Ikuspegi konstruktibista batetik, ezagutza ikasleek beraiek sortzen dute, bere jakintzaren eraikitzaileak baitira. Kontzeptuak barneratu eta berezkoa duten estruktura kontzeptualen bitartez esanahia ematen diote. Honenbestez, ikaskuntza berrikuste, aldaketa, dibertsifikazio, koordinazio eta ikaslearen jakintza eskemen eraketa moduan ematen da.

Baina hezkuntza holistikoak ikuspegi konstruktibista gainditu eta *pertsonan zentratutako ikuspegia* aldarrikatzen du. Honen aitzindaria Carl R. Rogers (1990) dugu eta bere hezkuntza ikuspegia pertsonan zentratutako ikuspegian oinarritzen da. Bere ustez, ikaskuntzaren objektu zentrala, askatasunean oinarritutako hezkuntzaren eta garapenaren bitartez auto-errealizazioa lortzean datza. Prozesu hau gizakiek jakintza,

sentimenduak eta gaitasunak integratzean datza, modu honetan, auto-ikaskuntzako prozesu jarraia eta iraunkorra bermatuz.

Gonzalezek (2009) ikuspegi honen *ezaugarri nagusiak* ondorengoak dira:

- Ikaslean zentratzen da, eta ikaskuntza esanguratsuan, garapen integralean, auto-errealizazioan eta transzendentzian bideratutako pertsonen arteko erlazio konprometitu, egiazkoa, enpatikoa eta kongruentea bilatzen ditu.
- Pertsonarekiko errespetu osoan oinarritzen da. Hau da, bere erritmo propioan edo bere bizitzako esperientzia pertsonalean, modua honetan, bere giza dimentsioen potentziala presionatu edo behartu gabe ikaskuntza eratzea ahalbidetuz.
- Ikaslea maila indibidual zein kolektiboan ikasten doan heinean, ezagutza eta honetatik eratortzen diren esanahiak eratzen joaten dela.
- Kontzientziaren garapen maila ezberdinak eta, hauen lorpen eta mugak ezagutu eta onartzen ditu.
- Irakastea lanbide bat izan ordez, ikaslearen barnean ezagutzak barneratu eta asimilatzea ahalbidetzen den *arte bat* dela defendatzen du. Hau da, ezagutzak bere egitura propioetan integratuz eta transzendituz.
- Ikaskuntza etengabea, sekuentziala, integratzailea, inguratzailea eta goranzkoa den prozesu bat bezala ulertzen da. Honek, ikaslearen ikaskuntza eta garapen prozesuan esku-hartze aktiboa eta, nork bere buruaren, besteen eta inguratzen duen munduaren topaketaren hezkuntza praxia ahalbidetzen du.
- Bere hezkuntza praktikan eduki teoriko-kontzeptualak barne hartzeaz gain, trebetasunak, gaitasunak eta teknikak ere barne hartzen ditu. Betiere esperientzia, interesak, kezka eta balore pertsonalak zein ikaskuntzaren komunitatearenak barne hartuz.
- Auto-onarpena; auto-estimua; askatasun arduratsua; kreatibitatea; nork bere buruaren espresioa; komunitate irekiak; pertsonen arteko erlazioak; baloreen heziketa; elkarrizketa, esperientzia eta aldaketari irekitzea; gizakiaren potentzial integrala ahalbidetzen duten alternatiba eta bideen ezagutza sustatu eta errazten du.

- Irakaslea, helburu bezala ikasleen garapen orekatu integrala bilatzen duenez, instruktorea izateari utzi, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua errazten duena izan da.

Carl Rogersek (1990) ikaskuntza, ikasleak testuinguruarekin elkarlanean sortzen diren esperientzia kontziente zein inkontziente guztien prozesu integral moduan ulertzen du. Prozesu hau, kontzientzia indibidualaren asimilazio, sinbolizazio eta antolakuntzaren emaitza moduan eratzen da.

Beraz, ikuspegi holistiko batetik, *hezkuntzak,* pertsona bere ikaskuntza eta garapen prozesuan gaitu, gidatu eta laguntzeko bideratzen du.

*Irakaslea*ren rolari dagokionez, hezkuntza prozesua errazten duena da eta, bizitzaren artearen baloreekin kongruente izatearen ardura berea egiten du. Honekin batera, konfiantza, laguntza, elkarrizketa, errespetua, inpartzialitatea, konpromezua, askatasuna, tolerantzia, ikerketa, errespontsabilitatea eta erreprozitatea ahalbidetuz.

### 3.3. Hezkuntza holistikoaren printzipioak eta helburu orokorrak

1990ean Chicagon (Illinois) hezkuntzaren ikuspegi holistiko batean interesatutako hezitzaile talde batek, *"Global Alliance For Transforming Education"*[3] izendatutako nazioarteko bilera bat egin zuten. Ondorio bezala, hezkuntza paradigma berri baten *oinarrizko hamar printzipio* proposatu zituzten:

- Hezkuntza holistikoaren helburua giza garapena da.
- Gizakiak, ikasteko gaitasun mugagabea dauka.
- Ikaskuntza, esperientziaren bitartez lortutako prozesua da.
- Ezagutza lortzeko bide ezberdinak daude.
- Irakaslea zein ikaslea ikaskuntza prozesu baten barne daude.
- Ikaskuntza bakarrik askatasunezko testuinguru batean ematen da.
- Esku-hartze demokratiko baterako heziketa bermatu behar da.
- Herritartasun global eta aniztasuna errespetatzeko hezkuntza sustatu behar da.

[3] Chapingo Unibertsitate Autonomoa (1995), "Global Alliance For Transforming Education", *Cuadernos de formación de investigadores*-en. Mexiko, Chapingo Unibertsitate Autonomoa.

- Heziketa ekologikoa bermatu behar da.
- Espiritualitatea, osotasun eta barneko ordenaren zuzeneko esperientzia da.

Honako hauek oinarritzat hartuta, Ana Maria Gonzálezek (2009) ikaskuntza holistikoa sustatzeko oinarrizko printzipioen artean honako hauek planteatzen ditu:

- *Prozesu integral bat bezala ulertzen da (bio-psiko-soziala).* Gizaki guztiak, jaiotzaren momentutik, gizakiaren dimentsioetan dagoen sortzetiko potentzialaren errealizazio osoa bilatzen duen mugimendu konstantean dagoen espiral batean bizi dira.
- Gizakiak ikasteko, aurkitzeko eta esploratzeko potentziala, bere izatearen ulermena handitzeko ahalmena, eta munduan egoteko eta gizabanako bezala unibertso bateko kide eta parte-hartzailea izatearen kontzientzia hartzea berezkoa du.
- *Ikasten ikasten goazen heinean kontzientzia hedatzen doa.* Hau ez da bakarrik ikasketaren, memorizazioaren eta informazioaren tratamenduaren bitartez ezagutzak barneratzeari mugatzen. Baizik eta bizitzan zehar, konstanteki mantentzen den ikasteko gaitasunaren garapena barne hartzen du. Gainera, dinamismo honek, pertsonari, aldaketa eta garapen konstantean dagoen mundu honi modu egokian erantzutea ahalbidetzen dio.
- *Ikaskuntza prozesu iraunkor eta pertsonala da*, dena den, aldi berean, *prozesu sozial bat ere osatzen du*. Besteekiko interakzio kontzientearen bitartez, gizakiak bera denaren, eta inguratzen duenaren errealitatea ikasten joaten da.
- *Hausnarketa kontzienteak barneko transformazioa eragiten du, eta beraz, bere testuinguru sozial eta naturala ere.* Bakarrik hausnarketa eta aldaketara bideratutako intentzionalitate irekiaren bitartez, egi partzialei aurre eta, berdintasunak konpartitu eta ezberdintasunak ospatzeko elkarbizitza kreatibo bat lortzea posible izaten da.
- *Informazioaren tratamendua mugimendu zirkular batean datza.* Honen hasiera, organismoak kanpo edo barnetik jasotzen duen estimulu bat da. Hau gizabanakoak hauteman eta bere bizitzako esperientzietan, interes pertsonaletan, momentuko beharretan … oinarrituta berezkoa duen kode

baten bitartez prozesatzen du. Behin informazioa tratatu ondoren, hau kontzientzia indibidualean barneratu eta sentsazio eta sentimendu zehatz batzuk sortzen ditu, erreakzio (intuitiboa) eta erantzun (intentzionala) zehatz bat eraginez. Bukatzeko, erreakzio edo erantzun hauen ondorioek, modu berdinean prozesatuko diren estimulu berri batzuk eragiten dituzte.




**1. Irudia.** Estimulu-erantzunaren arteko erlazioa. (Gonzalez, 2009)

- *Errealitatearen pertzepzioa eta bere prozesamendua, kontzientzia indibidualaren garapen eta mugen menpe dago.* Honek, polaritateen integrazio prozesuen bitartez kontzientzia hedatzen doan heinean, ikasitakoa analizatu, integratu eta transzenditzeko sakontasuna handitzen joaten dela esan nahi du.

  Gainera, gizakiaren kontzientzia hedatzen denean, bere gorputzaren barrutik zein kanpotik datozen estimulu kantitate gehiagoz kontziente egiten da.

- *Irakasle hoberena besteetan gauzatu nahi duena ezer baino lehen bere buruarengan sortu nahi duena da.* Hau da, hezitzailearen kontzientziaren garapenak modu garrantzitsu batean ikasleen hezkuntza prozesuan eragiten du.

Beste alde batetik Ana Mª Gonzalezek (2009) hezkuntza holistikoaren helburu orokor ezberdinak aurkezten ditu. Haren aburuz, hezkuntza holistikoaren helburu

nagusia kontzientziaren garapena bere posibilitate urrunenenetarantz sustatzea da, gizakien oinarrizko potentzial eta dinamismoen prozesu ebolutiboa erraztuz. Honetatik eratortzen dira jarraian azalduko ditudan helburu orokorrak:

- *Autonomia eta interdependentziako jardueratan lagundu*. Askatasun arduratsu baten garapena sustatu, honek modu kontziente eta arduratsuan, zein auto-gidaketa inteligentearen gaitasunen bitartez hautatzeko aukera eragiten du.
- *Admirazio eta harriduraren gaitasunen garapena sustatzea*. Honek pertsonaren ezagutzak eta bere kontzientzia maila handitzera bideratzen du gizabanakoa.
- *Ikasten ikasteko prozesua erraztea,* esperientzia, elkarrizketa, elkartzea eta aldaketetara irekitzearen bitartez.
- *Ezagutzak eskuratzeko modu ezberdinen integrazioa eta inteligentzia anitzen garapena sustatuz.*
- *Pentsamendu kritikoaren gaitasunaren garapena sustatu.* Modu honetan, ikaslearen bereizteko gaitasuna eta erabakiak modu libre, kontziente eta arduratsu batean hartzeko gaitasuna ahalbidetzeko.
- *Kreatibitatea garatzeko prozesua erraztu,* bizitzan agertzen diren arazoei erantzuna emateko alternatibak bilatzeko gaitasuna garatzeko.
- *Jarrera konstruktiboen garapena erraztu,* ikasleak egoera problematikoen aurrean modu kontziente, malguan eta jakintsuan erantzutera bideratua.
- Testuinguruarekiko interakzio kontziente eta erlazio interpertsonal konprometitu, orekatu, solidario eta esanguratsuak ahalbidetzeko jarrera eta baloreak erraztu.
- *Elkarrizketa dialogikoa eta trasmititzaile baten eredua sustatu* mundu hobe baten bilaketan parte-hartze kontziente eta solidarioan laguntzeko.
- *Interdependentzia sozial, kultural, ekonomiko politikoa eta ekologiko* baten existentzia eta garrantzia aldarrikatzen duen kontzientzia baten eraketan lagundu.
- *Erabakiak hartzeko garaian, parte-hartze libre eta arduratsua sustatu.* Honekin batera, lidergo pertsonala zein akziora bideratutako pentsamendu eta sentimenduak sustatu.

- Talde lana eta estruktura sozial zein kolektiboen eraketa eta indartzea bultzatu.
- Gizarte sostengarri baten eraketara bideratutako oinarrizko transformazioak sustatu.
- Ebaluazio prozesu objektibo, justu zein konstruktiboak ahalbidetzeko beharrezkoak diren gaitasun eta abileziak sustatu.
- Garapenari bideratutako motibazioa kanpoko sariak lortzea baino, sozializatutako objektibo propioak garatzea ahalbidetzen duen klima ahalbidetu.
- Ikaslea bere benetako esentziaren esnatzea ahalbidetzen duen bidean ikaslea lagundu.

Normalean, ikaskuntzari buruz hitz egiten dugunean bere eremua hezkuntza formalera murrizten dugu. Hau da, hierarkizatua dagoen sistema eta izaera ofizial bat duten arauetara murrizten dela pentsatzen dugu. Baina perspektiba holistiko batetik, prozesu ebolutiboaren oinarrizko parte bezala ulertuta, ez da hezkuntza formal edo ez formalera mugatzen. Horietaz gain, egunerokotasunean oinarritutako esperientzia espontaneo eta ez estrukturatuen aniztasun handiari erreferentzia egiten dio. Hau da, bizitzaren egoera eta eszenatoki guztietan ematen da ikaskuntza.

Honenbestez, ikaskuntzaren sustapena eta erraztea gizartean parte-hartzen duten gizaki guztien ardura da. Ideia honetatik modu indibidual zein sozial edo mundialean jakintza, abilezia, gaitasun, jarrera eta balore berrien beharra eratortzen da.

### 3.4. Hezkuntza holistikoaren dimentsioak

Hezkuntza paradigma berritzaile honek hezkuntza integrala bilatzen du. Hau da, gorputza, emozioak, adimena eta espirituko aspektuen osagarritasun orekatuan oinarritzen da. Jarraian, Claudio Naranjok (2004) esparru ezberdin hauek lantzeko proposatzen dituen tresna batzuk aipatuko ditut:

### *3.4.1. Hezkuntza fisikoa*

*Hezkuntza fisikoari* dagokionez, jada badakigu kiroletan zaletu eta forma fisiko egokian egoteaz aparte, gorputzaren lanketaren forma sutilagoak badaudela.

Hezkuntza fisiko tradizionalari gehitu behar zaizkion alderdiak jarrera eta arretarekin zerikusia dute. Honetaz gain, curriculumean entrenamendu sensorio-motorreko alderdi batzuk batzea ere egokia izango litzateke.

"Mugimenduaren bitarteko auto-kontzientzia" bezalako gorputzaren mugimendua lantzeko teknikez gain, Gerda Alexander-ren psikomotrizitate erlazionala eta, Hatha Yoga edo Tai-Chi –Chuang bezalako ikuspegi tradizionalagoak oso egokiak dira hezkuntza praktikan.

Alderdi fisikoarekin zerikusia duen beste arlo bat, etxearen zaintza, sukaldeko artearen edo artisautzarekin lotutako trebetasunak dira. Gainera eskulan hauek ere, pazientzia edo autosatisfakzioa bezalako trebeziak lantzeko egoera paregabea eragiten du. Zeren kasu hauetan eginbehar bakoitzari behar duen denbora eman behar zaio eta honekin batera, behar den momentuan bertan arreta jarri, hau da, hemen eta orainean.

### *3.4.2. Hezkuntza afektibo eta soziala*

*Sentimenduen hezkuntzari* dagokionez, esan beharra dago hezkuntza afektiboa oso lotuta dagoela erlazio interpertsonalekin, eta aldi berean, bakoitza bere buruarengan duen jakintzarekin.

Zentzu honetan Magantok (2010: 30-31) gizabanako bakoitzaren zoriona eguneroko gertakariak bizitzeko eta hauei aurre egiteko ikuspegi positiboarekin estuki lotuta dagoela dio. Hau da, eskolatik sustatu behar diren emozio positiboek, osasunean, buruaren ongizatean eta bizi kalitatean eragin handia daukate, gizabanakoaren alderdi positiboak ezagutu eta garatzea eragiten baitituzte. Bide batez, emozio positiboen sustatze honek, bizitzan zehar pertsonak izango dituen egoera zailei aurre egiteko baliabideen eskuratzea bermatzen du pertsona egoera hauetaz ikasi eta hazteko bidea ahalbidetuz. Emozio positiboek bizitzako esparru eta adin guztietan arrakasta izatea ekartzen baitute.

Magantok (2010: 30-31) pertsonaren garapen egokia sustatzeko ondorengo gakoak aipatzen ditu:

- Gizarte harreman osasuntsu eta esanguratsuak garatu eta zaindu.
- Interesatzen zaizkion gauzak egitea.
- Bizitza egituratu eta planifikatu.
- Helburu esanguratsuak lortzen saiatu eta jarraikia izan.
- Itxaropenak eta nahiak gutxitu.
- Pentsamendu positiboa izan.
- Zailtasunei modu eraikitzailean aurre egin.
- Arreta orain eta hemen-ean jarri.
- Nork bere burua onartu eta balioetsi.

Emozioen lanketa esanguratsu hau bermatzeko Claudio Naranjok (2004) gure curriculoetan giza komunikazioan oinarritutako laborategiak sortu beharko liratekeela azpimarratzen du. Espazio hauetan, bakoitzak bere buruaren ulermena garatzea ahalbidetu eta sustatzeko momentua izanenen da. Betiere, kontzientziazio interpertsonala eta ikasketa komunikatiboa ahalbidetzen duen testuinguru bat izanik.

Baina ezer baino lehen, bakoitzaren sentimenduak identifikatzeko gaitasuna garatu behar dugu, honekin batera, irakaslea ere modu egokian eta autentikoan azalduz. Honetarako oso ekarpen interesgarriak dakartza dramatizazioaren teknika eta orokorrean, adierazpenerako edozein teknika.

Alderdi afektiboari dagokionez oso garrantzitsua da betiere argi izatea honen *helburu nagusia maitatzeko gaitasuna garatzea* dela. Oso argi dago osasuna eta bere bertute natural guztiak, nork bere burua maitatu eta besteak maitatzearekin bereizezinak direla. Beraz, *maitasunaren pedagogiaren* beharra dugu.

Badakigu, adibidez, ikasleei ulermen, ziurtasun edo berotasun psikologikoa eta sentimendu komunitario bat garatzeko aukera eragiteaz gain, gizarte honetan bizitzen diren haurren gehiengoa hezten den anbibalentziaz arduratu behar garela. Beraz, haurrek ikasi izan dituzten alderdi negatibo hauetaz libratu behar gara. Baina nola ez, honek ere prozesu psikoterapeutiko luze baten beharra izaten du. Beraz, gertakari honi

aurre egiteko Claudio Naranjo-ren (2004) ustetan *terapia eta hezkuntza esparruko alderdiak ez lirateke banatu* behar.

Analisi transazionala eta momentuko beste hainbat terapia oso erabilgarriak suertatu daitezke, bai gizabanakoaren garapen pertsonalerako zein hezitzaileen heziketa profesionalean.

Bestetik, hezkuntza esparruan Fische-Hoffman prozesua, potentzial izugarria daukan ikuspegi terapeutikoa dugu. Teknika honen esanetan, gurasoei bideratutako maitasunaren anbibalentzia eta, kontzientea edo erreprimitutako haien aurkako erasoak, gizabanakoak munduarekin duen erlazioetan kalte egiten du. Honek, orainean iraganean ikasitako jarrerak transferitzea eragiten du. Beraz, gurasoekin lotura afektiboa berrezartzen baldin bada, nork bere buruarekiko eta beste pertsonei bideratutako amodioa beste maila batean emango da.

### *3.4.3. Hezkuntza kognitiboa*

*Gaitasun kognitiboei* dagokienez, hezkuntzak bere praktikari gehitu ditzakeen baliabide berriak daude. Besteak beste, aurresuposizio inplizituen[4] analisiaren entrenamenduan, pentsamendu dialektiko edo Feuerstein-en hezkuntza ez berbala.

Hauetaz gain, *matematika*k arrazonamenduaren ikaskuntzan ere, izugarrizko balioa dauka. Honekin batera, eta garunaren bi hemisferioen oreka lortzeko helburuarekin *musika*k ere garrantzia handia hartzen du. Esan beharra dago, sormenezko adierazpena transmititzeko bidea edozein izanda ere, intuizioa garatzeko bide dela. Beste baliabideen artean, Orff-en sistema, Dalcroze-ren Eurritmia edo Zoltan Kodali-ren lanak ditugu.

### *3.4.4. Hezkuntza espirituala*

Afektuzko gaitasunean oinarritutako beste alderdi bat *transpertsonal edo espirituala* dugu. Honen bitartez, alde batetik “Egoaren” erortzea sustatzea, izaera bera gainditzen erakustea eta barneko oztopoetatik askatzeko prozesuan laguntza

[4] Adibidez, Abercromlie-ren *Antomy of Thinking* liburuan edo Mayfield-en *Thinking for yourself*-en.

eskaintzea dakar. Eta bestetik, meditazio forma ezberdinak ahalbidetzen duten ezaugarriak garatzearen beharra dago.

Honek hezkuntza transpertsonala ahalbidetzen du. Hau da, gorputza, adimena eta emozioez haratago dagoen hezkuntzaren aspektua da, tradizionalki “espiritua” deitu izan dena. Baina gure garaiko espiritua ez dator bat inolako dogma irakastearekin, baizik eta, espirituaren alorreko ikuspegi transistemiko eta transkulturala bideratzeko momentua heldu da.

Claudio Naranjo-ren (2004) ustetan ikaskuntza hau ez zen esparru teorikora murriztu behar, baizik eta diziplina espiritualen bizipenekin osagarrituta egon beharko luke “erlijioko laborategi” bat bezala.

Diziplina espiritual guztiek kontzientziako jarrera optimoa bilatzen dute eta, egoera eta esperientzia multifazetiko batzuk eragiten dituzte. Hau da, sentsazio eta ezaugarri ezberdinen bitartez, argitasun, lasaitasun, askatasun, amodio eta aldentzea bilatzen dute.

Zentzu honetan Mark Greenberg (2009) psikologoak bere ikerketetan yoga edo presentzia erneak ikaslearengan oso ondorio positiboak dituztela frogatu du. Hau da, alde batetik haurren zenbait arazo modu esanguratsuan gutxitu zituztela ondorioztatu zuten, esate baterako, hausnarrean egotea deitzen dutena, etengabe kezka eta antsietate-pentsamendu bera edukitzea. Bestetik, haurrek intrusio-pentsamendu gutxiago zituztela, hots, burura pentsamendu kontrolaezin gutxiago iristen zitzaiela ikusi zuten. Eta azkenik, haurrek emozioak gobernatzeko trebetasun handiagoa zutela ondorioztatu zuten.

# 4. HEZKUNTZA HOLISTIKOA PRAKTIKARA ERAMANEZ

## 4.1. Hezkuntza holistikoa ikuspuntu didaktiko batetik

*Praxis* hitza praktikaren sinonimotzat ulertu izan da askotan, baina kasu honetan praxis hitza hausnarketarekin lotuta dagoen ekintza multzo bati egiten dio erreferentzia, eta beraz, hezkuntza jardun transformatzaile batean bihurtzen da.

Praktika aldiz, gaitasun edo eginkizun zehatz baten errepikapenean oinarrituz, trebetasun edo abilezia zehatz baten garapena lortzera bideratua dago.

Hezkuntza prozesuetan gizakiaren ulermen holistiko baten beharra, bere dimentsio anitzak eta unibertsoan daukan txertatzea kontuan hartuta, Ana Mª Gonzálezen (2009) aburuz, hezkuntza holistikoaren praxisa ondorengo *ezaugarrietan oinarritzen da*:

- Kontzientziaren maila ebolutibo ezberdinen mugak eta ahalmenak ezagutu eta onartzen ditu, banatzen duen mugen disoluzioan lagunduz.
- Ezberdintasun indibidualetan oinarritzen den estruktura orekatu eta malgua aurkezten du. Modu honetan, bortxatu edo derrigortu gabe, auto-errealizazio eta transzendentzia prozesuak ahalbidetzen ditu.
- Ikaslearen ikaskuntza prozesuan esku-hartze aktiboa bultzatu eta errazten du, honekin batera, esperientziari irekiera, elkarrizketa eta nork bere buruarekiko, besteekiko, munduarekiko eta parte hartzen duen unibertsoarekiko aurkikuntza ahalbidetuz.
- Ikaskuntza komunitatearen beharrak, interesak, baloreak eta kezkak barne hartzen ditu.
- Izaten ikastea, ikasten ikastea, egiten ikastea eta, elkarbizitzen ikastea eta konpartitzen ikastea sustatzen du.
- Gizabanakoa bizi den munduaren aniztasunaren aurkikuntzara bideratzen ditu ezagutzak, kultura, herri, nazio eta ohituren artean zubiak eratuz.
- Kontzientzia kritikoa, kultura, artea, konpromezu soziala, kontzientzia ekologikoa eta etika mundizentrikoa sustatzen du.
- Gizakiak berezkoak dituen esfera sozial eta transzendentean sartzen da, giza komunitate osoaz atsekabetu eta arduratuz.
- Pertsonaren espazioa bere konplexutasun eta dignitatean berregiten saiatzen da, erlazio interpertsonalak eta interakzioa bultzatuz.
- Askatasunaren jarduera arduratsua sustatu eta laguntzen du. Freire (1965)-ean hezkuntza praxisa gizakia aske izateko aukera ezagutzera mugatzen ez dela esaten du, baizik eta bere askatasuna eraginkorra bilakatzera baizik.

- Elkarbizitza demokratikoa, giza komunitateen berreraketa, polaritate eta kontraesanen disoluzioan, jakintza zientifikoan, sentsibilitatean, errealitate transzendentearen irekiera eta zentzuaren eraikitzaileak diren erlijiozkotasuna sustatzen du.

Ana Mª Gonzalezek (2009) proposatzen dituen hezkuntza holistikoaren praxisaren oinarrizko zutabeak Freirek (1973) eskola askatzaileari buruz egindako proposamenean oinarritzen dira. Bere pentsamenduaren sistema filosofiko-teorikoaren tesian, parteak (holoiak) guztiaren horizonte esanguratsuan ulertzen da.

Freireren praxis pedagogikoa bost zutabeetan oinarritzen da. Hauek dialektikoki erlazionatuz, bere proposamen pedagogikoa modu koherente eta holistikoan ulertzeko gaitasuna ematen dute. Honako hauek dira:

- *Dimentsio axiologikoa.* Hezkuntzaren helburu eta baloreen esparruek osatzen dute. Laburbilduz, gizaki eta gizartearen gizatiartzea (humanizazioa) bilatzen du prozesu transformatzaile eta askatzailea baten bitartez.

  Dimentsio honek hezkuntza integralaren eraikina osatzen duten oinarrizko helburuak osatzen dute.

- *Dimentsio dialogikoa.* Elkarrizketa benetako demokrazia baten oinarri bezala ezartzen du. Komunikazio interpertsonalaren bitartez, kontzeptuak, ideiak, pentsamenduak, iritziak, sentimenduak eta bizitzako esperientziak barne-hartzen duen elkarrizketa.
- *Dimentsio politikoa.* Konpromezu sozial, kultural eta politikoari bideratutako hezkuntza jardueraren garrantzia azpimarratzen du (ez da jarduera partidario edo doktrinalik bilatzen).
- *Dimentsio gnoseologikoa.* Autonomia eta epaiketa kritikoaren garapenari bideratutako jardutea emateko aurreko dimentsioen ulermena eman behar da. Hau da, parte hartze sozial aktiboa, kontzientea, libreki hautatakoa eta arduratsua ahalbidetzeko beharrezkoak diren elementuak.
- *Dimentsio metodologikoa.* Aurreko dimentsioetan oinarritzen da, eta ikaskuntza-irakaskuntza metodoen(estrategia eta teknika didaktikoen) birformulazio eta garapena bilatzen du.

- Ulermena eta aurkikuntza ikasten ari den pertsonaren barneko esperientzia bezala ulertzen dute. Hau da, gizabanako bere esperientzia propiotik ikasten du.
- Pertzepzio prozesuaren aldaketa aldarrikatuz, jarrera, balore, jokaera eta ikasten ari den pertsonaren pertsonalitatean aldaketak sustatzen ditu.
- Modu esanguratsuan ikasitakoa pertsonaren barnean asimilatua gelditzen dela aldarrikatzen dute. Modu honetan, erabilgarria den energia moduan dago eta gizabanakoak behar duenean erabiltzeko prest dagoen baliabidea da.
- Ikasten ari den pertsona, berak lortutako ikaskuntza ebaluatzeko gaitasuna duen gizabanako bakarra dela aldarrikatzen dute.

Modu honetan ulertutako praxisa, gizakia bere esentzian dena bilakatzea uzten ez duenaz eta, askatzeko jarduera eta hausnarketaren arteko elkarrizketa etenezin bati deritzo.

Baina, *zertarako, nola eta zer irakasten da?, irakaskuntza nori bideratzen zaio?, ikasteak zer esan nahi du?...* eta modu honetako galderei erantzuten saiatzen garenean, ikuspegi psikopedadogikoa definitzea garrantzitsua da. Honek irakaskuntza-ikaskuntza prozesua mugatzen duten printzipio, ezaugarri, elementu, metodo eta praktikak bideratzen duena da.

Ikuspegi holistikoa pluridimentsional eta diziplinartekoa da, eta beraz garapen kognitibo, garapen afektibo-emozional, soziohistoriko, moral, baloreena eta espiritualeko prozesuak barne-hartzen ditu. Hau da, paradigma ezberdinetatik ekarritako planteamendu ezberdinen aldiberekotasuna guztiz beharrezkoa da.

Bere izate eta eginbeharraren hausnarketa sakona eragiten duen ikusmolde honek berarekin dakar: pluralitatea onartu eta zatiketa ekiditzea, komunikazio eta diskurtsoa sustatzea, ikerketa proiektuetan eduki eta perspektiba diziplinarioak barne-hartzea, irakasle eta ikasleen artean interakzioa sustatzea, eta testuinguruko ereduak eta eredu kulturalak garatzea.

Ana Mª Gonzálezek (2009) dioenez, didaktika konbentzionala eta ikuspegi holistikoa proposatzen duenaren arteko *ezberdintasunak* honakoak dira:

- Ikaslea entzuten, errepikatzen eta esandakoa betetzen duen elementu pasibo eta errezeptorea izateari uzten dio, eta pertsona aktibo, ekintzaile eta bere ikaskuntza eta garapenaren ardura zuzena hartzen du.
- Irakasleak inposatu, zigortu eta bortxatzearen papera izateari uzten dio, eta estimulatu, gidatu eta laguntzen duen elementu moduan jarduten da.
- Helburuek zentzu berria hartu eta lana dinamizatzen dute, egiten diren lan, funtzio eta jarduerei balorea emanez.
- Irakasgaiek irakasle eta ikasleei bideratutako kateak izateari uzten diote, irakasle eta ikasleek jakintza berriak eratzeko lan tresna bezala ulertuz.
- Metodoa irakasle edo programan zentratzeari uzten dio eta ikaslean zentratzen da: ikasten adi diren gaiarekiko bere interes, gaitasun, behar, kezka eta zalantzetan.

Hezkuntza eredu baten nolakotasunak, moduak … proposatzeko orduan, kontuan hartu beharreko beste elementu bat garapen ebolutiboaren kuadrante, esfera eta etapen ikuspegi argi eta ulermen sakon bat izatea da. Honekin batera ikuspegi honek didaktika, *irakaste-ikaste prozesuaren artea* bezala ulertzen du, eta oinarrizko giza dinamismoen auto-errealizazioa eta polaritate edo dikotomien transzendentzia sustatzen duten metodo, funtzio, teknika eta baliabideak aldarrikatzen ditu.

Ikuspegi honek proposatzen dituen baliabide didaktikoen artean honako hauek ditugu:

- Ikaskuntza komunitateak ezartzea.
- Ikaskuntza anitzen, zein ikaskuntza estilo eta jakintza moduen (begien) betetzea.
- Ikakuntza dialogikoa
- Pluralismo epistemologikoa
- Curriculo holistikoaren garapena.
- Transdiziplinitatea.

### *4.1.1. Ikaskuntza dialogikoa*

Paulo Freire-k (1970) gizabanakoaren izaera berez dialogikoa dela eta komunikatzea bakoitzaren bizitzaren rol nagusia dela esaten du. Etengabe besteekin elkarrizketan jarduten dugula dio, eta prozesu honetan gure burua eratu eta birreratzen ari garela.

Freire-ren (1970) ustetan, elkarrizketaren bitartez hezitzaileek ikasleengan ikaskuntza libre eta kritikoa eragiteko aukera dute. Beraz, elkarrizketaren bitartez, hezitzaileek ikasleen jakin-min epistemologikoa eragiteko egoerak sortu behar dituzte. Ekintza dialogikoaren helburua besteekin eta munduarekin elkarreraginean egia ezagutaraztea da.

### *4.1.2. Ikaskuntza komunitateak*

Paulo Freire-k (1970) hezkuntza bankarioaren kontzeptu tradizionala, hau da, irakasleak ezagutzak transmititu eta ikasleek metatu eta biltegiratzea, jarraian hauek azterketan jartzeko hezkuntza eredua alde batera uztea proposatzen du. Bere proposamen pedagogikoa ikaslea testuinguru sozial baten barnean dagoen ikaskuntza komunitate baten parte-hartzaile aktiboa bilakatu eta bere ikaskuntzaren erantzule bilakatzea da.

Honetan oinarrituta ikuspegi holistikoak giza komunitatea bere baitan hezkuntza komunitatea dela ulertzen du, bertan parte hartzen duten pertsonen heziketa integralean parte hartzen baitute. Gizarte komunitatean gizabanako bakoitzak helburu zehatz batzuk betetzen baititu, feedback-ean daude, bere burua ebaluatzen dute, bere antzekotasunak konpartitzen dituzte eta bere ezberdintasunak ospatzen baitituzte, bakoitzaren ikaskuntza propioa bere eskutan ardura hartuz.

Hezkuntza komunitatean praxis kontzientziaren horizontearen irekiera ahalbidetzen du auto-ezagutza, auto-errealizazioa, besteekin eta besteentzat izateko konprozemezua eta traszendentzia inplikatzen du honetarako eszenatoki aproposa sortuz.

Ikuspegi holistiko batetik, ikaskuntza komunitateek dimentsio espiritualaren garapena sustatzen dute. Espazio hauetan pertsonek baldintzarik gabeko onarpeneko

giro batean kontzientzia indibidualen bateratzea esperimentatzen baitute, ulermen enpatikoa, kongruentzia eta gardentasuna sustatuz. C. Rogersek (1983) esaten duen moduan, garapen bio-psiko-sozial-espirituala sustatzen duen klima bat eragiteko jarrera beharrezko eta nahikoak ematen dira.

Komunitate hauek ez dira bat-batean sortzen, baizik eta kontzientzia pertsonal, sozial, komunitario eta transzendentearen garapenerako giza naturaren dimentsioen pixkanakako disoluzioa eman behar da.

### *4.1.3. Inteligentzia anitzak*

1983an Howard Gardner-ek, Harvardeko Unibertsitateko irakasleak inteligentzia anitzen inguruan liburu bat argitaratu zuen. Honetan, inteligentzia bakarra existitu ordez, gizakiak bere burua eta ingurua ezagutu eta honekin erlazionatzeko trebetasun kognoszitibo edo “inteligentzia” anitzak existitzen direla defendatzen du. Bere jarrerak beraz, aurretik inteligentzia neurtzeko erabilia izan zen tresna bakarra, koefiziente intelektualaren (CI) ikuspegi zaharra, gainditzen du.

Autore honen aburuz, gizabanako bakoitzak zortzi kategoria edo “inteligentzia” ezberdinetan adierazten den inteligentzien konbinazio berezi bat du.

Howard Gardner-ek (2012) izendatutako liburuan ondorengo kategoria edo “inteligentzia” ezberdinak ezartzen ditu:

- *Inteligentzia berbal edo linguistikoa:* Inteligentzia hau idazketa sortzaile eta eraginkorrarekin, ahozko adierazpenarekin (formal edo ez formala), umorearekin, irakurketa-idazketarako trebetasunarekin, narrazioarekin eta hiztegiaren ezagutza zabalarekin erlazionatzen du. Sintaxia, erretorika, mnemoteknia eta meta-hizkuntza bere gain hartzen ditu.

  Gaitasun honen garapena, hitz joko; ipuinen, poesien eta egunerokoen idazketa, debateen … bitartez bermatzen da.

- *Inteligentzia logiko/matematikoa:* Zeinu abstraktuak eta formulak prozesatzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia, kalkulatu, kodigoak deszifratzeko, elementuen arteko erlazioak ezartzeari, problemak ebazteari,

patroi logiko-matematikoak garatzeari… bideratutako gaitasunari erreferentzia egiten dio.

Inteligentzia honen garapena ahalbidetzen duten jarduera praktikoen artean, esperimentuak egitea, antolatzaile grafikoak prestatu eta joko matematikoak egitea eta logika jolasak daude.

- *Inteligentzia bisual/espaziala:* Espazio tridimentsionala, kolore eta ehundura ezberdinetako eskemen bisualizazioa, mapa kontzeptualak eratu, eta espazioak transformatu eta muntai ezberdinak egiteko gaitasunari erreferentzia egiten dio.

Inteligentzia honen garapena sustatzen duten jarduera batzuk honakoak dira: margotzea, marraztea, zizelkatzea, arte bisualen proiektuetan parte hartzea (bideoak, karikaturak, argazkiak), ipuinak, istorioak edo olerkiak ilustratzea …

- *Inteligentzia korporala/kinestesikoa:* Mugimendu, keinu, mimika, dantza, dramatizazio eta gorputzaren eskulturen bitartez ideiak, sentimenduak eta emozioak adierazteko gorputz gaitasunari deritzo. Honekin batera, objektuak sortu edo eraldatzeko gorputzaren gaitasunak barne hartzen ditu, artisautza, arte plastikoak, mekanika, kirurgia … Inteligentzia honek gaitasun fisikoak (koordinazioa, oreka, indarra …) zein neurrien, bolumen edo espazioen gaitasun auto-pertzeptibo eta ukimenezkoak bere gain hartzen ditu.

Ohitura gimnastikoak, aerobikoak, kirolezkoak eta jarduera fisikoak, zein gorputzaren lengoaia bide bezala erabiltzen duten irudikapenerako edozein jarduerek inteligentzia honen garapenean laguntzen dute.

- *Inteligentzia musikal/erritmikoa:* Soinuaren bitartez, forma musikalak ahoskapena, kantua, musika tresna, eta, erritmo eta soinu ambientalen bitartez hauteman, transformatu eta adierazteko gaitasunari erreferentzia egiten dio.

Gaitasun honen garapena kantua, ahoskapena, musika tresnak jotzea, genero musikalak identifikatzea, eskuekin musika sortzearen … bitartez ematen da.

- *Inteligentzia interpertsonala:* Gaitasun honek beste pertsonen animo egoeren, beharren, intentzioen, motibazioen, sentimenduen eta emozioen, pertzepzio eta ezberdintzea bermatzen du. Enpatia, prozesu kolaboratzaileen, talde lanaren eta erlazio interpertsonal esanguratsua emateko berebiziko gaitasuna dugu honakoa.

Honen garapena lan kooperatibo-komunitarioa sustatzen duten ikaskuntza komunitate, laguntza taldeen, eta auto-estimua, komunikazioa eta konpromezu soziala sustatzen duten jardueren bitartez ahalbidetzen da.

- *Inteligentzia intrapertsonala:* Auto-aurkikuntza eta auto-ezagutzara bideratua dago eta bere barne: bakoitza munduan izateko, egoteko eta jarduteko moduaren auto-irudi zehatza; animo egoeren, intentzioen, beharren, motibazioen eta sentimendu pertsonalen kontzientzia argia eta bakoitzaren kontzientziaren barne prozesatu, antolatu eta integratzeko gaitasuna. Bere barne ditu fokalizazio, arrazonamendu eta kontzentraziorako trebetasunak, eta honekin batera pentsamendu, auto-hausnarketa, epaiketa kritiko, diskriminazio eta garapen pertsonalaren bilaketarako estrategiak. Introspekzioa, hausnarketa, bat-batekotasuna, kreatibitatea, auto-diziplina, erLespontsabilitatea, trebetasun sozial eta emozionalak, sentimenduen erabilera egokia, konfiantza, baldintzarik gabeko onarpen positibo eta aldaketari bideratutako irekitzearekin erlazionatzen da.

Gardner-ek inteligentzia emozionala, besteen eta bakoitzaren sentimenduak hautemateko gaitasunari deritzo. Modu honetan, haien artean ezberdinduz, bakoitzaren pentsamendu eta jokabideak gidatzeko informazioa bereganatuz. Honetarako ezer baino lehen, gu motibatu behar gara gure barnean eta besteekin ditugun erlazioetan emozioak  modu egokian maneiatzeko.

- *Inteligentzia naturalista:* Gaitasun hau naturako espezie ezberdinak ezagutu, klasifikatu eta ezberdintzeko trebetasunarekin erlazionatzen da. Bere barne besteen artean, naturaren baloratzea, ulermena, behaketa eta zaintza; ingurugiroaren babesa eta kontserbazioa, espezie organiko eta inorganikoen klasifikazioa eta izaki bizidunen arteko interakzioa ditugu.

Gardner-en (2012) aburuz, gaur egun ikaskuntza estilo, inteligentzia mota eta irakaskuntzarako estiloei buruz dakigunarekin, ezin da ikasleek modu berdinean ikasten dutela pentsatzen jarraitu. Bere ustez, irakasgai bat modu oso ezberdinetan aurkeztu daiteke, modu honetan, ikasleak bere gaitasun eta indar-guneetatik abiatuta jakintza bereganatu dezan.

Ana Mª Gonzálezek (2009) dioenez ikuspegi holistikoak, aurretik aurkeztutako kategoriez gain ezagutzako beste bi kategoria gehiago proposatzen ditu: inteligentzia existentziala eta inteligentzia espirituala.

- *Inteligentzia existentziala:* Pertsona bakoitza munduan izateko, egoteko eta jarduteko moduaren inguruan hausnartzeko gaitasun naturalari erreferentzia egiten dio. Gizakiaren funtsezko galderei erantzuna bilatzera bideratua dago: nor naiz?, nora noa?, munduan zertarako nago?, ze zentzu dauka nire existentziak?, edo kosmosarekin duen erlazioaz galdetzea, bere giza kondizioa, bizitzaren amodioa, sufrimendua edo heriotzaren esanahia …
- *Inteligentzia espirituala:* Gizakien izatearen ikuspegi holistiko batetik, kontzientziaren garapenaren maila altuena denez, espiritualitatearen eremua ikertzeko grina sortzen da. Gardner-ek (2012) berak, inteligentzia espiritualaren posibilitatea proposatzen du aurretik aipatutakoak gizakiak transzendentziara bideratutako tendentzia naturala azaltzeko nahikoak ez direla ondorioztatzerakoan.

> Inteligentzia espirituala, inteligentzia guztiei zentzua ematen diena bezala ikusita, erlijio eta bizitzeko filosofien ikerketak ahalbidetzen duen balore garaiago edo unibertsalagoen bilaketan ekiten diren pertsona konprometitu eta interesatuetan ematen da.

Hau, izaki, natura, mundu eta unibertsoarekin elkarrekintzan ematen diren ideia, pentsamendu, sentimendu, jarrera eta baloreen bitartez adierazten da. Gainera, pertzepzio, irudi eta sinbolo unibertsalekin erlazionatzen da berdintasunez disfrutatuz eta ezberdintasun indibidualak ospatuz.

Bere *ezaugarri nagusien* artean ditugu: auto-ezagutzaren maila altu bat, askatasun arduratsua, errukitasuna, justizia, ekitatea, ontasuna, solidaritatea, kreatibitatea, malgutasuna, eskuzabaltasuna, konpromezua eta, elkarrizketa, aurkikuntza, esperientzia eta aldaketari irekiera.

Beraz, ikuspegi holistikoak aldarrikatzen du hezkuntza ez dela bakarrik Gardner-ek proposatutako inteligentzia anitzenetara bideratu behar. Baizik eta hezkuntza praxis integral eta transformatzaile bat ahalbidetzeko inteligentzia existentzial eta espiritualak ere sustatu behar direla.

## 4. PROPOSAMEN DIDAKTIKO BAT HEZKUNTZA HOLISTIKOAREN IKUSPEGITIK

Jarraian gaur egun eskoletan erabiltzen den material didaktikoa oinarritzat hartuta, ikuspegi holistiko batetik baloratuko dut alde batetik, material honek dituen indar-guneak azalduz eta bestetik, faltan botatzen ditudan alorrak lantzeko proposamenak eginez.

Ikerketa eta proposamen didaktikoa egiteko aukeratu dudan materiala gaur egungo D ereduko hezkuntza praktikan oso erabilia den materiala da, Txanela. Proiektu didaktiko hau ikastolen elkarteak sortu zuen, baina bere kalitate onari esker zabaldu, eta gaur egun ikastetxe publiko askotan ere erabiltzen ari da.

Nire proposamena, Txanelan Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleei bideratutako lehenengo proiektuan oinarritua dago eta “zein txikia jaio nintzen” da bere izenburua. (ikusi 1. eranskina)

Lehenik eta behin ikuspegi holistiko batetik material didaktiko honek dituen indar-guneak aipatuko ditut.

- *Diziplinartekotasuna eta inteligentzia anitzak:*

Kontzeptuak ez dira irakasgaien bitartez banatzen baizik eta gai baten inguruan dihardute. Modu honetan ikasleak gaia bere osotasunean ulertzeko aukera du, eta ezagutzen arteko erlazioak modu koherente batean ulertzeko aukera dauka. Proiektu honetan adibidez, euskara erabiltzen dute gutun bat nola idazten den ikasteko edo komiki batzuen bitartez, musika proiektuak berak proposatzen duen abesti batekin melodia egiteko, natura haurrak nondik datozen ikasteko edo ingelera euskaraz landutako kontzeptuak bi hizkuntzatan lantzeko.

Diziplinartekotasunarekin batera, modu honetan Gardner-en (2012) inteligentzia anitzak lantzen ari dira. Zeren azpimarratu dugunez ez dago inteligentzia bakarra eta honetan proiektu honetan ere, inteligentzia linguistikoa, ikusizko inteligentzia edo espaziala (zuhaitz genealogikoa) eta inteligentzia musikal edo erritmikoa (abesti baten erritmoa asmatu).

- *Ikaskuntza aktiboa:*

Ikuspuntu holistiko batetik, ikaslearen ikaskuntza bermatzeko honen jardute aktiboa oso garrantzitsua da, eta proiektu honetan aurkezten diren jarduerak kasu guztietan praktikoak direnez, ikasleak modu aktiboan lan egin behar du. Hau da, irakaslearen gidaren laguntzaz bere ikaskuntza propioa sortzeko aukera dauka.

- *Motibazioa:*

Proiektu honek ere ikaslea motibatzen saiatzen da eta aurretik azpimarratu dugun moduan motibazioak hautematea, arreta eta oroimena bezalako gaitasun psikologikoak eragiten baititu. Alde batetik liburuaren estetika (marrazkiak, testuen letrak, koloreak…) asko zaintzen ditu, eta honekin batera, gai honen inguruko esperientzia bizitzera gonbidatzen dutenak argazki eta bineten bitartez, beste bi haur (neska eta mutila) eta loro bat dira.

- *Aniztasuna:*

Aniztasuna ezagutarazi eta baloratzen du, eta honetarako familiei buruz hitz egiten ari denean haur adoptatuak dituzten familiak eta guraso bakarrak dituzten familiak ere aurkezten ditu. Kasu honetan nire ustez, aniztasun honen barnean guraso

homosexualak dituzten familiak edo aitona-amonekin, izeba-osabekin … bizi diren familiak falta diren arren.

- *Ikaslea bere garapenaren kontziente:*

Joxan Ormazabalek proposatutako olerkiaren bitartez bere garapen fisiko eta psikologikoaz ohartarazten du haurra. Beste gauzen artean hurrengoa esaten du olerki honek: ez naiz gogoratzen noiz jaio nintzen baina poliki-poliki ari naiz handitzen …

- *Ikaskuntza komunitatea:*

Horretaz gain, ikaskuntza komunitatearen alderdi batzuei erreferentzia egiten die, alde batetik beste ikastola bateko haurrekin eskutitz-trukaketa proposatuz, eta bestetik ere bere zuhaitz genealogikoa osatzeko eskatuz. Honekin batera, bere testuinguruan bizi diren pertsonen inguruan hausnartzeko eskatzen die bere inguruan bizi diren familia egiturei buruz eta emigrazioaz galdetuz (zure ustez zergatik joaten da jendea bere jaioterritik urruti? Ezagutzen al duzu urrutira joan den inor?).

- *Hausnarketa:*

Galderen bitarteko taldeko eta banakako hausnarketa lana ere proposatzen du, beste galderen artean: garrantzitsua al da handiagoa ala txikiago izatea? Zer da benetan garrantzitsua?. Jarduera hauek, ikasleak bere burua eta besteak onartzen ikastea posiblea egiten du. Zeren hausnarketa sakona eta besteen iritzia entzuten eta errespetatzen oso jakintza esanguratsuak lortzeko aukera dute.

- *Alderdi emozionala:*

Aspektu emozionalaren lanketari keinu txiki bat egiten dio proiektuak, hau da, gaiaren bukaeran urrutira bizitzera joan diren pertsonen buruz hitz egiten ari direnean hausnartzeko hainbat galdera proposatzen baititu: nola sentitzen dela uste duzu? Zergatik? Eta bere familiakoak?.

Behin proiektu honek dituen indar-guneak aztertu ondoren, benetako hezkuntza holistikoa garatzeko falta zaizkion alderdiak proposatuko ditut. Hasteko, egunerokotasunean ikasgelan agertuko diren hiru esparru adieraziko ditut, hau da, elkarrizketa dialogikoa, hausnarketa kontzientea eta bakearen txokoa eta ondoren,

"Zein txikia jaio naizen!" proiektuan benetako hezkuntza holistikoa bermatzeko ariketa batzuk proposatuko ditut.

- *Arnasketa kontzientea.*

Lehenik eta behin, sistematikoki klase guztien hasieran 5 minutuko arnasketa kontzientea egitea proposatuko dut. Jarduera hau lurrean eserita eta begiak itxita dituztela egingo dugu. Betiere bizkarra zuzen izan dezatela eskatuko diet modu honetan arnasa arazorik gabe hartu dezaten. Behin arnasketa egiten ari direnean, arnasa hartu eta botatzearen prozesuan zentratu daitezen eskatuko diet, prozesu hau modu lasai eta natural batean eginez.

Egunerokotasunean egingo dugun jarduera honek, haurrek eta hezitzaileak berak ere sentitu dezaketen estresa bideratzeko eta arreta zentratzeko baliagarria suertatuko zaigu.

- *Bakearen txokoa.*

Ikasleak eguneko edozein momentutan gaizki sentitzen baldin bada edo lasaitzeko beharra sentitzen badu, gelan bertan, horretara bideratutako espazio bat erabilgarri izanen du.

- *Elkarrizketa dialogikoa.*

Proposatuko ditudan jarduera guztien helburuetako bat elkarrizketa eta honen bitarteko hausnarketa pertsonala sustatzea izango da. Modu honetan, elkarrizketaren bitartez, ikasleek modu kritiko eta aske batean haien errealitate propioa eraikitzeko aukera izango dute.

Aurretik aipatu dudan moduan, jarraian liburuan agertzen diren jarduerak osatuko ditut. Proposatutako jarduera hauek gehienbat hausnarketa kritiko eta askea bideratzeko, ikasleak ikaskuntza komunitatearen parte direla jakinarazteko, haien gorputzaren kontziente egiteko eta, haien eta besteen emozioak ezagutu eta garatzeko sortuak izan dira.

Puntu baten bitartez liburuak proposatzen duen jardueren zerrenda adieraziko dut eta jarraian, hezkuntzaren ikuspegi holistiko batetik proposatu ditudan jarduera multzoa.

- Potxolo negarti bat etorri zaigu! Komikia irakurri.

Komiki honek haurtzaroan oso gatazkatsua izaten ohi den egoera bati buruz hitz egiteko aukera ematen digu, hau da, anai edo arreba baten jaiotza. Beraz, modu honetako galderak bideratuko dizkiet:

- Nola sentitu zarete anai edo arreba bat jaiotzerakoan? Zergatik?
- Eta anai edo arrebarik ez baldin badituzue, egoera horren aurrean nola uste duzue sentituko zinetela? Zergatik?
- Komikian haur jaioberria negartia dela esaten du. Zuentzat zer da negartia izatea? Zergatik?
- Negar egitea gauza negatiboa ala positiboa dela uste duzue?

Behin haurrek egoera horren aurrean dituzten emozioak landuta eta jarduera aberasteko helburuarekin, ikasle baten gurasoak haurdun daudela aprobetxatu eta, ama eta aita gelara etortzera gonbidatuko ditugu. Modu honetan, ikasleek gurasoak egoera hau nola bizitzen duten ezagutu eta egoerari buruz duten jakin-mina asetuko dute.

- Eskutitz bat nola idazten den erakusten du, hau gaiaren lanketa ondoren bere bukaerako helburua izango dela jakinaraziz.

Hausnartzeko aurkeztuko dizkiedan galderak:

